

HAUR SAHARARRENTZAKO LEA-ARTIBAIKO ATERPETXEA 2020KO UDAN.



PROIEKTUAREN BULTZATZAILEAK:

	Yaalah! Sahararekin elkarlanean elkartea IFZ: G95898268 Harremanetarako: Yaalahelkartea@gmail.com edo 628986839 (eneko)
 R.A.S.D. Delegación Saharaui en Euskadi Euskadiraiko Saharar Ordezkaritza	EUSKADIKO SAHARAR ORDEZKARITZA Pintor Jesús Apellaniz N° 9, bajo 01008 Vitoria-Gasteiz - Araba 945 25 20 69 - 635 28 59 82 Email: info@polisarioeuskadi.eus

AURKIBIDEA:

1. SARRERA

2. FUNTSAKETA

- 2.1 SAHARAR HERRIAREN HISTORIA
- 2.2 OPORRAK BAKEAN PROIEKTUA
- 2.3 YAALAH ELKARTEA PROIEKTUAN

3. PLANIFIKAZIOA

- 3.1 HELBURUAK
- 3.2 BALIABIDEAK
- 3.3 EKINTZAK
- 3.4 KRONOGRAMA
- 3.5 AURREKONTUA

4. EBALUAZIOA

5. BESTE HERRIETAKO ATERPETXEEN ARGAZKIAK



1. SARRERA

44 urte igaro dira saharar biztanleria ezohizko egoera batean bizitzera behartu zituztela. 44 urte saharar biztanleria hiru eremutan bizitzera behartu zituztela, batzuk Marokoko erresumaren boterepean dauden lurralde okupatuan, beste batzuk Fronte POLISARIOaren eskuetan dauden lurralde askatuan eta beste batzuk Tindoufen (Argelian) kokatzen diren errefuxiatu kanpamentuetan. Urte guzti hauetan, batez ere, saharar errefuxiatu lurraldean bizi diren sahararrek ezinbestekoa izan dute toki ezberdinetatik eratorritako mota ezberdinetako laguntza.

EAEen elkarte eta herri ugari dira saharar herriarekin elkartasuna adierazten dutenak. Nahiz eta bakoitzak funtzionamendu independente bat izan, ia guztiek bi proiektuetan bat egiten dute. Bata oinarrizko elikagaien bilketa eta bestea uztaila eta abuztuangauzatzen den “Oporrak Bakean” izeneko programa. Azken programa honen baitan aipaturiko bi hilabeteetan saharar errefuxiatu eremuetatik eratorritako haurrak euskal harrera familietan egoten dira proiektuak berak dituen helburuak lortuz.

Programa hau saharar haurrentzat eta orokorrean saharar biztanleriarentzat oso garrantzitsuada.

Harrera familiek duten garrantzia azpimarratuz, baina saharar errefuxiatu eremuetatik uda igarotzera ahalik eta haur gehien irtetea helburutzat harturik hurrek uda taldean igarotzeko ideia sortuzen.

Horretarako heldu genion EAEko beste herri batzuetan bezala haur sahararrak uda aterpetxean igarotzeko ideari.

2. FUNTSAKETA

2.1. SAHARAR HERRIAREN HISTORIA

1974ean, Espainiak bere kolonia zen Mendebaldeko Saharako biztanleei autodeterminazio erreferenduma egingo zuela adierazi zien.

Baina hitz hauen ondotik Espainiak hiruko hitzarmena sinatu zuen Madrilén, Maroko eta Mauritaniarekin, bere kolonia tarta bat balitz bezala bi herrien artean banatu zuelarik.



Marokok martxa berdea deiturikoa bidali zuen eta saharar biztanleria fosforoz eta napalez erasotu ondoren sahararrak ihesi atera behar izan zuten. Honek 16 urte iraun zuen gerratea sortzeaz gain, saharar biztanleriaren zatitzea eragin zuen.

Alde batetik ihesik atera zirenak, hauek Argeliak utzitako desertu zatian errefuxiatu eremuak sortu zituztelarik, eta bestetik ihesik atera ahal ezin izan zutenak, gaur egun Marokoren monarkiapean bizi direnak.

1988an Sahara eta Marokoren arteko negoziazioak hasi ziren Nazio Batuak eta Afrika Batuaren taldeek neurturik. Honetatik Bakerako Plana atera zen, plan honetan 1992ko lehen hilabeteetan ospatuko litzatekeen erreferenduma proposatu zen.

Marokok arazo handiak jarri zituen planean zehaztutako pausoak aurreraeramateko.

Kofi Anan Nazio Batuen idazkari izendatu zutenean, Houstoneko Hitzarmena sinatu zen. Bertan bozkatzailen zentzua garatu zen, errefuxiatuen itzulera, saharar eta marokoar tropen su etena, gerra presoen trukaketa eta askatzea eta jarrera kodigoen sorrera nola hitzartu zitekeen adostuzen.

Ban Ki Moon Nazio Batuen idazkari jarri zutenean, honek Van Walsum izendatu zuen Marokoko erregimenaren eta Fronte POLISARIOarena arteko elkarriketa ordezkari gisa. Ordutik, inongo ondorioetara iristen ez diren elkarriketak burutzen dira. Iaz Europako Nazioak ez zuen arrantza hitzarmena bersinatu.

Urte guzti hauetan, hitzarmen hauen ondorioz, mundu osoko arrantzaleek sahararren uretan askatasun guztiz arrantzatu dute euren baimenik gabe. Horrela bada, euren benetako jabeek ez dute inongo irabazirik lortu.

Bestetik, Marokoko erregimenak Estatu batuen laguntza militarra jaso nahi badu, Mendebaldeko Saharan giza-eskubideak errespetatzen dituela ziurtatu beharko dio honi.

Bi ekintza hauek, egunero euren lurraldean aske bizi ahal izateko lanean aritzen den saharar herriarentzat eta bere egoerarentzat oso garrantzitsuak izan dira.

Bi txanda ezberdinetan, Christoffer Ross Nazio Batuetako ordezkariak saharar gaian erlazioa duen herrialdeetan izan da. Mendebaldeko Saharan, Marokon, Mauritania, Argelian, Frantzia eta Espainiatik pasa da.

Egindako bilera guztien ondorio txosten bat gauzatu du.

Txosten hau, azken hilabeteetan Mendebaldeko Sahara bisitatu duten beste zenbait elkarte, ONG, politikari, ordezkari... osaturiko txosteneitxertatzenaie.

Guztietan Mendebaldeko Saharan giza-eskubideen errespetu falta azaltzen eta azaleratzen da. Egunero torturak, atxiloketak, jipoiak, zibilei zuzenduriko epaiketa militarrek, oinarritzko bizi-baldintzak lortzeko ezintasuna, sahararrek egunerokotasunari eusteko zailtasuna... behin eta berriz errepikatu diren azalpenak dira.



Horrela bada, saharar herriarekin elkartasuna duen banako bakoitzak saharar herritarren ondoan egon behar dugu. Bakoitzak gustokoen duen arloan lagunduz eta elkartasuna eskainiz.

2.2. OPORRAK BAKEAN PROIEKTUA

1979an sortu zen programa honen beharra. Bere helburu orokorra bi hilabetez bada ere, 10 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpamentuetatik ateratzea da eta bide batez desertuan udako bi hilabete horietan pairatzen den tenperatura altuetatik babestea. Gainera, mediku errebisioak gauzatzen zaizkie eta oinarritzko arazoak konpontzeko bidean jarri. Bestalde elikadura gabezien ondorioz sortutako kalteei aurre egiten zaie. Azkenik, euren herriak pairatzen duen egoera ezagutaraztea ematen da, bi herrien arteko kultur trukaketa gertatzen da eta euskaldunen eta sahararren arteko elkartasuna zabaltzen da.

Saharar herriak pairatzen duen ezohizko egoera hau 44 urtetan zabaltzen da. Urte guzti hauetan saharar errefuxiatu kanpamentuetara zuzendutako laguntza mota ezberdinak ugariak izan dira. Egoera, gatazka politiko bat da, eta gatazka honen soluzioetan babesa eman behar dugu, eta saharar herriaren ondoan egon. Baina era berean, ez dugu ahaztu behar, beharrezkoa dela errefuxiatuak oinarritzko beharrak hasetu behar dituztela, nahiz eta batzuetan oso zaila suertatu. Gainera urtetik urtera laguntza ofizialeetatik eratorritako laguntzak gutxitu egin dira (munduan zehar sortzen diren gabezien arabera eta beharren arabera laguntza ematen zaielako) eta elkartasuna adierazten dieten taldeek osatzen eta lortzen duten laguntza ez da nahikoa izaten. Hau dela eta, oinarritzko elikagaien eskasia ere nabaria da, honek dakartzan ondorioguztiekin.

“oporrak bakean” programan parte hartzen duten haurrek bi hilabetez egoki elikatzen dira, izan ditzaketen anemia gutxiagotzen da eta negu gogorra iristerako beharrezko bitamina eta indarra eskuratzen dute.

Bestalde, nahiz eta errefuxiatu eremuan osasunaren aldeko apustua egin eta herri bakoitzean mediku bat izateaz gain, ospitalenagusian, zaila suertatzenda guretzatohikoak diren errebisio medikoak egitea. Nahiz eta baliabide pertsonalak egon, baliabide materialak falta ohi direlako. Horrela bada, “Oporrak bakean” programan parte hartzen duten haurrei ohiko errebisio medikoak pasatzen zaizkie, odol analisiak, begi eta belarri ikerketak... Ikerketa hauetan gaixotasun txikiak topatzen direlarik eta askotan bi hilabetezko epean konpontzeko bidean jartzen dira. Modu honetara, proiektuak eskaintzen dituen irteera guztiei esker, helduagoak direnean izan ditzaketen gaixotasunak erraz ikus daitezke.

Euren hezkuntzan ere ondorio positiboak eragiten ditu proiektuak. Urteetan zehar eskolan soilik entzun dituzten mendi, ibai, itsasoa... ikusten dituzte. Gainera beraien kulturatik oso ezberdina den beste kultura batekin topo egiten dute, bere hizkuntzatik oso ezberdina den hizkuntzak ezagutzen dituzte, askotan bi hizkuntza gehiago ere ikasten dituztelarik, euskara eta erdara.



Azkenik ez dugu ahaztu behar, saharar herriak pairatzen duen egoeraren enbaxadore lana egiten dutela. Bi hilabetez bada ere bere harrera familian eta honen inguruan urte guztian zehar bizi duten egoera azalduko dute eta nahiz eta hasieran ez egoki azaltzen jakin, egoera honetan bizitzeko zergatiak ere adieraziko dituzte. Azken finean elkartasuna adieraziko duten familiak heziko dituzte

2.3 YAALAH ELKARTEA aterpetxearen proiektuan.

Yalah elkarte 2017ko Martxoan, Ondarroan sortu zen saharar herriarekin handik edo hemendik harremana zuten herritar ezberdinei esker. Elkartea sortu zenetik helburu nagusi bat zehaztu zen, saharar herriak bizi duen gatazka injustu honetan ahalik eta gehien laguntzea. Helburu hori bete asmoz, elkarte, urtean hiru ekimen edo zeregin nagusietan murgiltzen da, batetik urteroko Euskal Herriko elkartasun karabanarako elikagai bilketa antolatzeaz arduratzen da, bestetik saharar errefuxiatuen kanpamentuetan jada martxan dagoen “Bir Ganduz” proiektua sortu zuen eta bultzatzen jarraitzen du, eta azkenik “Oporrak Bakean” haur sahararrak udako bi hilabetez gurera ekartzeko programa herri mailan antolatzeaz arduratzen da, berau aurrera eramateko beharrezkoak diren kanpaina, tramitazioa, familia formakuntza... zuzenduz. Ekimen guzti hauek egiten direnean, saharar herriaren inguruko informazioa modu ezberdinetan zabaltzen ahalegintzen gara, herritarrak gaiarekin sentsibilizatzeko asmoz.

Ekimenen artean aipatzen den “Oporrak Bakean” programa kudeatzea elkartearen ardura handienetakoa da, kontuan izanda, elkarteak egiten duen kanpaina eta programaren kudeaketa motak eragin zuzena izan dezakeela herrian uda pasatuko duten ume sahararren kopuruetan. Orain arte, familiak lortu, beharrezko tramitazioak egin eta dena normaltasunez doala bermatzera mugatu izan gara elkar bezala. Azken urteetako datuak ikusita, Ondarroara uda pasatzera etorri diren haur kopurua igo egin da, (2017an 2 haur, 2018an 3 haur eta 2019an 5 haur) baina helburua ahalik eta haur gehien ekartzea izanik, harrera familia gehiago lortzeaz gain “HAUR SAHARARRENTZAKO LEA-ARTIBAiko ATERPETXEA” proiektua sortu dugu. Proiektu hau EAEko beste herrietako aterpetxeetako esperientziak oinarri hartuta sortu da, eta asmoa 2020ko udan Lea-Artibai eskualdean gauzatzea da. Proiektu honek, gure eskualdean uda igaroko duten haur sahararren kopurua nabarmen igoko du eta ume gehiagok izango dute basamortuko baldintza gogorretatik bi hilabetez bada ere urruntzeko aukera.



3 PLANIFIKAZIOA

3.1. HELBURUAK

a) Helburu orokorrak

- Saharar herriaren bizi baldintzak hobetzea
- Umeei uda atsegin bat pasatzen laguntzea.

b) Helburu zehatzak

- “Oporrak Bakean” proiektuan parte hartzen duten haur kopurua mantendu edo handitzea.
- Uztaila eta abuztuan saharar errefuxiatu eremuan bizi duten egoeratik ahal diren eta haur kopuru handiena ateratzea.
- Opor ezberdin batzuk igarotzen laguntzea.
- Kanpamentuetan bizi dituzten derrigorrezko 10 hilabeteak ahalik eta egokien igaro ahal izateko, bi hilabeteetan elikadura orekatua jasotzeko aukera ematea.
- Heziketa berri bat ematea.
- Liburuetan soilik ikusi dituzten erreka, ibaiak, mendiak, itsasoak... erakustea.
- Euskal kultura ezagutu eta konpartitzea.
- Euskal herritarrek saharar egoeraz sentsibilizatzea

3.2. BALIABIDEAK

1) Giza baliabideak:

Aterpetxearen inguruan lan talde bat egongo da, Yaalah elkarteko kidez osatuta, lan talde hori aurretiaz egin beharreko lanak egiteaz arduratuko da, lekuaren prestaketa, haurrak ekartzeko beharrezkoak diren tramitazioak, seguruak, begiraleen txandak, propaganda,...

Aterpetxeak iraungo duen bi hilabeteetan (uztaila eta abuztua) **boluntarioz osatutako astekako txandak egingo dira. 4 begirale, 2 sukaldari eta 2 arduradun.**

Begirale talde bakoitzean sukaldari arduraduna, ekintza eta aktibitate arduraduna eta begirale arduraduna egongo da.

Aterpetxearen egonaldia hasten denetik eta amaitzen denerarte, **bi arduradun nagusi egongo dira liberatuta dena koordinatzen.** Arduradun horien lana orokorrean dena joan behar den bezala doala arduratzea izango da, aurreko tramitazioetatik aparte. Besteak beste txandak koordinatu, erosketak egin eta ia eguneko 24 orduz bertan egongo direnez, sortu daitekezen arazoak konpondu eta dena normaltasunez doala bermatzea izango da beraien zeregin nagusia.



Haurren egonaldian zehar, Saharar kanpamentuetako begirale bat egotea baloratuko da aurretiaz, haurrak kanpamentuetatik kanpo egongo diren lehen aldia dela kontuan izanda, horrek sortu dezakeen arazo linguistiko, kulturalak... arintzeko helburuarekin. Begirale sahararra, urte guztian zehar saharar herriaren alde lanean arituz den gazte bat izango da, kanpamentuetan bizi dena. Begiralea saharar gazteria eta haurren ministeritzak izendatuko du.

- Kokapena eta infraestruktura

Proiektuaren oinarria eta Aurrera ateratzeko baldintza nagusia, egitasmoa gauzatzeko gune fisikoaren edukitzea da. Lekua aukeratzeko orduan eskualdeko eskolak izan genituen buruan, eta posible izan ezkerreko kostak herriren batean kokatuta dagoena, Hori kontuan izanda Ondarroako Zaldupe eskolarekin harremanetan jarri eta aterpetxea bertan kokatzea adostu dugu. Eskola bat egokia ikusten dugu proiektua bertan garatzeko, batetik, urte denboran pasarako dituen baliabideengatik; jolastokia, gimnasioa, jolasak... eta alde teknikoak, sukaldaria, jantokia, dutxak, gelak... Kostak herrian izatea ere oso garrantzitsutzat jotzen dugu hondartza eta itsasoarekin gozatzeko aukera izan dezaten eta hondartzarako garraio gastuak ekiditeko.

-Baliabide ekonomikoa

Proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoa dugu erakunde publikoen laguntza ekonomikoa. Enpresa pribatuaren erabilera ere joko dugu eta Crowdfunding bezelako kanpaina martxan jartzea baloratuko da lagundu nahi duten norbanakoek laguntza eman dezaten.

3.3 EKINTZAK

Udako bi hilabete hauetan hainbat ekintza egitea litzateke asmoa, gai eta arlo ezberdinetakoak ahal izan ezkerreko, kultura, kirola, festa giroa, lurralde ezagutza... hemen idatzitako ekintza hauek egingo ditugu udaran nahiz eta zerrenda hau behin beinekoa izango den, ekintzen planifikazio zehatza egiten dugunea osatuko dugu behin betiko zerrenda.



1. Tailer ezberdinak: Pintura, antzerkia, marrazkigintza, musika, jolasak...
2. Kirol ekintzak: arrauna, futbola, saskibaloia, igeriketa...
3. Mendi irteerak eskualdean eta Ondarroan zehar.
4. Olentzero etxea parke mitologikoa bisitatuko dugu.
5. Hondartzara sarritan egingo ditugu irteerak.
6. Udal polikiroldegiko igerilekuan igeriketa ikastaroak haurrekin.
7. Udaletxe eta erakunde desberdinek antolatutako ekitaldi politikoetan parte hartuko dugu, baita, ongi etorria emateko "Oporrak bakean" taldeak antolatzen duen egun osoko festan.
8. Herri ezberdinetako festetan parte hartuko dugu.

Lea-Artibaiko herri guztietan egingo ditugu bisitak, jarduerak, ekimenak... eskualdeako herriak gertutik ezagutu eta herrietan gaia zabaltzeko asmoz. Herri bakoitzeko talde eta eragile ezberdinekin harremanak egiten ahaleginduko gara egingo ditugun ekimenak ahalik eta aberatsenak izan daitezen.

3.4 KRONOGRAMA

Proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoa da kronograma osatzea eta datak zehatz-mehatz errespetatzea.

2019ko IRAILA	-Lea-Artibaiko aterpetxearen proiektuaren hasiera
2019ko IRAILA, URRIA eta AZAROA	-Lea-Artibaiko aterpetxearen proiektua eskualdeko udaletxe guztietara, amankomunazgora eta erakunde publikoetara aurkeztuko da, udal ordezkariekin bilerak egingo dira proiektua arduradunen eskutik aurkezteko. -Finantzaketa bideei hasiera ematen hasiko gara.
2020ko URTARRILA, OTSAILA, MARTXOA eta APIRILA	-Begirale bolondresak lotzeko eta formatzeko epea zabalduko dugu. -Material bilketak egingo ditugu eskualdeko ikastetxeetan: Umeentzako arropa, motxilak, zapatak, higie-ne produktua... -Haur Sahararren beharrezko dokumentazioaren prestaketa
2020ko MAIATZA eta EKAINA	-Erabiliko ditugun instalazioen prestaketa lanak. -Egingo diren ekintza eta irteerak zehaztuko dira. -Material didaktikoen eta ekintza osagarrien prestaketa -Ume kopurua, adina eta sexua zehaztu bezain laster lehenengoko erosketa oinarritzako egingo ditugu: barruko arropa, kirol arropa, higie-ne produktua...
2020ko UZTAILA-ABUZTUA	-HAUR SAHARAREN TALDEA ATERPETXEAN EGONGO DA.
2020ko IRAILA, URRIA, AZAROA	-Proiektuaren ebaluazio orokorra -Memoria idaztea -Gaztuen zuri-keta -Hurrengo urteko proiektuaren hasiera.

3.5 AURREKONTUA

Aurrekontuko gastuei aurre egiteko Euskal Herriko administrazio, udaletxe ... ezberdinetan aurkeztuko da proiektua. Gainera, ahal dugun einean ekintza ezberdinak antolatuko ditugu gure aldetik ere finantziazioa lortu ahalizateko.

AURREKONTUA: 15 HAUR SAHARARREN 2 HILABETeko EGONALDIA

3.3 AURREKONTUA	Unitateak	Kopurua €	guztira
Aterpetxean uda igaroko duten haurren+Ondarroako harrera familietako haurren bidaia eta bisatu gastuak.	15+5	685€	13.700€
Jarduerak (Bisitak, mendi eta toki ezberdinetara irterrerak,erakunde ezberdinetara bisitak...)			1.000€
Aterpetxearen egoitzaren prestaketa			1.000€
Garraioa (busa) • Loitutik aterpetxera eta itzulera • Aterpetxetik ekintzetara • Proiektuaren prestaketan eta ebaluaketan beharrezkoa izango den garraio gastua			3.000€
Elikadura 2 hilabeterako 7.5 euro egun eta pertsona bakoitzeko. 15 haur eta 6 begirale	21pertsona x7,5€ x 60egun		9.450€
Arropa eta higiene produktuak	15	200€	3.000€
Haurren familia bakoitzari 100€ko laguntza ekonomikoa	15	100€	1.500€
24 orduak aterpetxean emango dituzten bi koordinatzaile nagusien bi hilabeteko ordainsaria. ¹	2ordainsari x 2 arduradun	900x2= 1800 x2	3.600€
Bestelako gastuak (telefonoak, fotokopiak...)			400€
GUZTIRA			36.650€

Aurrekontua, EAEko beste aterpetxeak eredu hartuta osatuta dago.

¹ Elkarteko kide bi izango dira eta aterpetxeak irauten duen bi hilabeteetan aurreko prestaketa lanetan eta balorazioan burubelarri ibiliko dira. Beraiek izango dira proiektuaren dinamizatzaile eta arduradun nagusiak.

4.EBALUAZIOA

- Yaalah elkarteak urrian proiektuaren azken baloraketa egingo du. Guztia memoria batean azalduko da, baita gastuen aurkezpena ere.
- Astero begiraleak baloraketa egiteko bilduko dira. Baloraketa honen bidez egin daitezkeen aldaketak egingo direlarik. Honako gauza hauek baloratuko dira:
 - Begiraleen lana
 - Gauzatzen diren ekintzen egokitasuna
 - Lan taldearen harremana
 - Sortu diren arazoak
- Jarraipen koadernoak: Egunero begiraleak eta arduradunak bilduko dira egunean zehar egindako ekintzak, eguneko martxa, balorazioa, tirabirak... komentatu eta koadernoan idatzita geratzeko
- Balorazio parametroak:
 - Hurrekin batera egindako egonaldiari buruzko eguneroko balorazioa, eta sortu ahal izan diren arazoei emandako irtenbidea.
 - Egunero egindako jardueren balorazioa.
 - Begiraleek egindako eguneroko lana.
 - Taldekideen arteko harremanak.
 - Sortutako arazoak aztertu eta etorkizunean sahiesteko proposamenak.
 - Hobekuntzarako proposamenak.

Bestalde hurrekin ere noiz behinkako baloraketak egingo ditugu, zer moduz dauden jakiteko, begiraleekin nola konpontzen diren, taldekideekin nola konpontzen diren...



5. BESTE HERRIETAKO ATERPETXEEN ARGAZKIAK



(Larrabetzuko aterpetxean jarduera ezberdinak)



(ASPEko aterpetxeko familia argazkia)



(Hernialdeko aterpetxeko umeei ongi etorria Ataunen)



(Larrabetzuko aterpetzeko haurrak Zumaiaiko Darahli elkarteko begirale bolondreekin txangoan)

Yaalah! Sahararekin elkarlanean elkarteak

IFZ:G95898268

IBAN: ES2030350021130210047022

Harremanetarako:

Yaalahelkarteak@gmail.com edo
628986839 (Eneko)

